

TOKIKOM karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2010eko irailaren 17a
283. zenbakia. 22. urtea



Ligaren bila orain!

Denboraldia borobiltzeko aukera aparta du Orioko Arraun Elkarteak, irailaren azken asteburuan San Miguel Liga irabazten badu.

05

Orioko kontuak
Hondartzaren egoera

08

Kirola
Blanco mundialean

11

Aiako berri
Uda ona

25

Herritarra
Amalia Duran

tailer mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.



urrutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

Dorromoro Denda

1961etik zure ondoan

**AUKERA HANDIAGOA
FRUTATEGIAN**



Tel 943 83 09 37

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Euzko Gudarikalea 13-15
ORIO
943-83 38 75

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogi larleko mundialak

ABELARTEKALIA, 1 TEL. 943 83 16 57

AMILIBIA
ONTZIELAK, S. L.

lortu parturaz proiektu
eta instalazioak

guti mailako kateketarako
arrazonamenduak



Olasoagacgia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Kinkladenda - Une arropa

argine

www.lasonef.com/argine
Tel. 943 13 48 89

**25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN**

**Automóviles
ZARAUZ**

OTROEN ALBIZU-ORRIKALIA

trituratu, berritu
eta aldatu

ZARAUZ. TEL 943 13 13 50

 **kutxa**

Carmen eta Txomin
ARRANDECIAN



943 83 05 37 / 943 83 27 47

Igo zaitez haize berrietara!

Galema I



943890416-677149934
galema1orio@hotmail.com

azkue

Tf: 943 13 04 38

ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abetxola, 10-12-14
943 83 09 45 / 943 83 23 25
ZARAUZ

Gabon
TABERNA

plater konbinaluak
eta pintxoak

Tf: 943 83 06 09

**TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L**

GIROKORAK - BARRUTIA



Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax: 943 134 634
E-mail: mmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
ISO 9001

Estereko balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

1946ko alironeko bertsoak

1

Or dijuaz, or dijuaz
arraunlariak, arraunlariak
hor dijuaz, hor dijuaz
txalupa bizkarren hartuaz.

2

Orio bat, Pasaia bi
Donostia eta Hondarrabi
balizetan dira jarri
estropadaren egarri.

3

Arin, arin, txalopa
ura erdibituaz
olatuei agurka
dotore dijuaz.

4

Arraunketan, arraunketan
Orio sartu da balizetan
palada bat, palada bi
hurrena da Ondarrabi.

5

Mitxelena patroia da
Portu ankekoa
tostan bi aldetatik
indarra nahikoa.

6

Arraunak urpian ausi
askatu indarrak
aupa gu gaituk nausi
gora oriotarrak.

7

Eutsi eutsi, ortan ortan
palada luzatuz atzera
orain bildu, txanpa-txanpa
lantzari ekitera.

8

Arraunak josi, urpian ausi
gu gaituk nausi mutilak
orain jasota, indarra bota
gora San Nikolas.

283.

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Oriu
943 83 15 27
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea
Karkara taldea kultur
elkartea

Zuzendaria
Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldegi,
Pat Cowie, Miren Etxeberria,
Eli Lasa eta Jabier Zabaleta

Publizitatea
Pat Cowie

Publizitatearen diseinua
Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa
Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak
Joxe Carrera,
Eider Goiburu eta
Maria Rengifo

Laguntzaileak
Onintza Aiestaran
eta Iñaki Iturain

Diseinua
Karkara taldea

Banatzaileak
Oihana Genoba eta
Ane Murillo (Oriu)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

Karkarak ez du bere gain
hartzeko aldizkarian
adierazitako esanien edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARA argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatiak, baldin eta iturria
aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Altza hankak, altza!

Ikasturte berriarekin batera, aurten ere euskal dantza ikasteko saioekin hasiko gara Talai Mendi elkarteak.

Kontu izan 18 urtetik gorako edonork parte har dezakeela fandangoa, arin-arina, mutxikoak, Larrain dantza eta abar ikasten. Aukera paregabea izango da animatzen diren guztientzat. Irailaren 29an, asteazkenarekin, gaueko 21:00etan hasiko dugu ikasturtea Kosta Tailerrean. ■ **Talai Mendi ME, Helduen Dantza Eskola.**

Dirudunei aurre eginez

Kontxako historian badira garaipenak eta balentriak, bereziki gogoratzea merezi dutenak, eta joan den igandeko estropada horietako bat izan zen.

Gure Mirotzak aingeruen antzera egin zuen hegan Donostiako badian, eta garaipen hori bereziki azpimarragarria eta merezimendu handikoa da.

Batetik, gazteak direlako txaluparen motorra, gure harrobiko gazteak. Eta, bestetik, izan zituzten aurkariak goi mailakoak zirelako, beste kategoria batekoak. Beste kategoria batekoak diot, benetan Kantauriko arraunlarien selezioak direlako. Hain zuzen, Kaikuren, Urdaibairen eta baita Castroren tostan ere, azken hamabost urteetan hainbat taldeetatik ateratako estropalari onen suenetakoak dabiltzalako: Oriotik, Astillerotik, Pedreñatik eta Galiziako hainbat taldeetatik pasatako goi mailako arraunlariak aipatutako bizkaitarren eta castrotarren tostan aritzen dira.

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Zarautzen denboraldiko garaipen baliotsuenetako bat lortu genuen, eta baita ederki lortu ere. Igandean, Donostian, garaipen ikusgarria eskaini ziguten gure mutilek, azkenik bigarren postua eskuratuz. Uda honetako Liga oraindik gure helburuen artean dago, igandekoa ikusi eta gero, goia oso hurre ikusten baitugu. Emaizta hauek, zalantzarik gabe, goi mailako taldea dela gurea esaten digute, eta hori beste lekuetan ibiltzen diren diru hotsak entzun ere egin gabe!

Aupa mutilak! Aupa Orio! ■ **Manu Etxeberria Sedano.** Arraunzalea

HEMEROTEKA

Ijitoak

Iraultza frantsesak aldarrikatutako printzipio ezagunak (Liberté, égalité, fraternité) alderatzen badituzu Vichy-ko gobernuak aldarrikatu zituenekin (Travail, famille, patrie), uste baino errazagoa gertatuko zaizu Sarkozy-katzea ideologikoki. Aldarri bata zein bestea ispilu gardenak dira nork bere burua non ikusi nahi lukeen erabakitzeke; bi aldarrien arteko hautamena oso praktika pedagogikoa da auzi sozialetan noren alde egin erabakitzeke orduan ere. Adibidez, ijitoei buruzko debatan.

Oriotarroi ijitoak deitzen digute, irain moduan askotan. Deituraren zer-gatiaz entzun ditudan argibide ugarien artean, ederrena guztiz bat dator iraultza frantsesaren aldarriarekin: inguruko herrietan inork ijitorik nahi izaten ez, eta Orion ematen omen zitzairen beren kanpamenduak eraikitzeke aukera.

Ez dakit horregatik garen ijitoak, baina hala balitz, iraina lore bihurtzen zaitgu. ■ **Anjel Lertxundi.** Berria egunkariko Hitz Beste atalean argitaratua, 2010eko irailaren 3an.

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Alaxtin automatikak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arrantzale, 31 20810 ORIO

ASADOR XIXARIO

Hainko Gudarri, Kalea 2
TEL: 943 83 919 - 0100

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hazkuntza.net

SOLOZABAL autoeskola

Eusko Gudarri, 30-1. ez
telef: 943 83 08 12

ODITZ

Donostia, Kalea 10
tel. 943 53 00 59

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta errentuntak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefono: 943 8312 36 Eusko Gudarri, 5

LOBETXU JATETXEN

Eusko Gudarri, 18 Tel: 943 83 00 07

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudarri, 46
Tel: 943 83 12 84 - Fax: 943 83 12 84

Hondartzaren baldintzak hobetzeko eskatu dute Herriok eta OSTk

Aldaketa handiak eragin ditu hondarrak ibai osoan eta Antilla hondartza inguruan eta, gaiarekin kezkatuta, lankidetza hitzarmena sinatu dute Orioko Herrio Natur Taldeak eta Orioko Surf Taldeak

Orioko hondarraren egoera kaskarrarekin kezkatuta eta irtenbideren bat bilatzeko asmoarekin, lankidetza hitzarmena sinatu berri dute Orioko Herrio Natur Taldeak eta Orioko Surf taldeak – OST –, hil honetan bertan. Alde batetik, hondarraren kontuarekin zerikusiren bat duten erakunde –Portu eta Kostetako Zuzendaritza, Udala...– eta entitate –alderdi politiko, enpresa, elkarte...– guztiek dagokien ardura har dezaten lortu nahi dute bi taldeek bat eginda. Horrez gain, konponbideren bat bilatu bitartean, gaia gertutik jarraitu nahi dute.

Hondar sistemaren aldaketa sorrarazi duten eragileen azterketa zorrotz eta garden bat egitea ere beharrezkotzat jotzen dute Herriok eta OSTk.

Gero eta hondar gutxiago

Hondarraren egoerak nabarmen okerrera egin izanak zerikusi zuzena du, sinatzaileen ustez, 1997an egindako Orioko itsasadarreko kanpoko muturrarekin. Lankidetza hitzarmenaren arabera, Natura 2000 planaren barruan, BGL –Batasunaren Garrantzizko Leku– izendatu zuen Oria ibaiko gunea Europar Batasunak 2003. urtean eta eremu hori hondarrik gabe geratzen ari da azken hamar urteotan. Aldaketak, gainera, ez dira Antilla hondartzaren ingurura bakarrik mugatzen, ibai osoan ere gero eta hondar gutxiago eta lohi gehiago dagoela jakinarazi baitute eta Oribarzarko hondartzan okerrago daudela gauzak, hondarra desagertze bidean delako.

Antillako hondartza inguruan izandako kalteak ere gogora ekarri nahi izan dituzte bi taldeek elkarrekin egindako idatzian: hondartzaren eskuinaldean marrea behekoan sortzen zen Aranarriko



Agintariak dagokien ardura har dezaten lortu nahi dute lankidetza hitzarmenarekin. HERRIO ETA OST

hondartza zeharo galdu da; itsasbeheran lehorrean geratzen zen lautada zabala ere askoz txikiagoa da; urertzean sortzen den aldapa handiak ere zeresan handia ematen du udaro. Olatuak indar handiz lehertzen dira bat-batean hondarra jotzean koska horretan eta sustoren bat baino gehiago izaten da urtero igerilari-rien artean.

Hondarraren kalitatea ere askotan izaten da hizketagai: batetik, hauts asko sortzen delako hondartzan eta, bestetik, ur izkinan hartxintxarrak agertzen direlako eta urtetik urtera gero eta narrasago dagoelako dena.

Mugatua

Herrio taldearen eta Orioko Surf Taldearen arabera, ingurumenean eta biodibertsitatean eragin handia duen hondasun mugatua da hondarra, askori iruditzen ez bazaio ere.

Herrioko kideen ustez, orain arteko joera zein izan den ikusita, garbi dago etorkizunean zer gerta daitekeen: hondartzak hondarra galtzen jarraituko duela. Orioko Surf Taldeak eta Herrio natur taldeak lankidetza hitzarmenean eskatutako ikerketak pista batzuk eman ditzake arazoari aurre egiteko eta egoerari konponbidea emateko.

agirresarobe ARKITEKTURA
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXEREN ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK
FATXADA ETA TERLATUEN KOBERTURAZ PROIEKTUAK, KOGALAK
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORMEAK, BEREKO KOORDINAKUNTZA

OBRA HERRIEN PROIEKTUAK, HIRIGINTZA, LURREK KIDEAKETA

URAIN AGIRRESAROBEN LURRERAK ARKITEKTURA
IT. KATIBIK E. D. SILEDOA, ZARA-72

TEL: 635 731 722

2GURPIL

Bosoride 2 - 3 - 2010 Orio (Gipuzkoa)

TEL: 635 731 722 | WWW: www.2gurpilbizkiletak.com | EMAIL: hinorpe@hotmail.com



Arostegi tailerrean dago *Berriz Gure Naia* itsasontzia, noiz desegingo duten zain. KARKARA

Berriz Gure Naia ontzia ez desegiteko eskatu dute herritar batzuek

Desegiteko azken egunak gainean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Udalarekin harremanetan jarri dira, Orioko egurrezko azken itsasontziari beste erabilera bat emateko asmoz

Orion geratzen den zurezko itsasontzi bakarra da *Berriz Gure Naia* eta, desegitekoak direla eta, ontzia osorik ur gainean uzteko laguntza eskatu du herritar talde batek. Hondoratu aurretik bestelako erabileraren bat emateko lanean hasi dira, besteak beste, Juan Gorostegi, Xanti Manterola eta Eusebio Aldaz. *Erabile-turistikoa eman diezaioke Oriok baporeari edota zurezko itsasontziak nolakoak ziren haurrei erakusteko balio dezake, eskola moduan*, Gorostediren ustez.

Eusko Jaurlaritzatik bideratuz

Noiz desegingo duten zain badaude ere, duela hilabete inguru hasi dira ontzia txikitze lanak Arostegi tailerrean. Herriko eta Foru Aldundiko agintariak desegitearen jakinaren gainean jarri ditu herritar talde honek. Alde batetik, presazko mozioa sartu du Eusko Alkartasuna alderdiak Orioko Udalean eta, bestalde, Foru Aldundiko teknikari Manu Izagirre itsasontzia ikusten izan zen abuztuan.

Dagokion txostena idatzi eta Aldundiko Ondare Zuzendari Pilar Azurmendiren eskuetan utzi du. Jon Redondo alkatearekin hitz egitekotan da orain, gaia nola bideratu aztertze.

Bien bitartean, lanean hasi behar dutela esan dio Izagirrek Gorostegiren taldeari, betiere ontziko armadore Gabriel Urangaren baimenarekin: Europar Batasuneko dagokion erakundearekin harremanetan jarri beharko dute lehenik eta behin, ontzia desegiteko epea atzeratzeko. Proiektuaren ezaugarriak jasotzen dituen plan bat ere egin beharko dute; erabilera, kudeaketa plana, segurtasun neurriak... bilduko dituen.

Diru kantitate handiaz hitz egiten ari direla jakinda -ontziak berak dituen gastuez gain, desegiteagatik jasoko lukeen dirua eman beharko litzaioke armadoreari-, laguntzak lortzeko ate asko jo beharko dituztela dio Manu Izagirrek, administrazioaren bat, edo Europar Batasuna bera, gastuaren kargu egin dadin.

LABUR

Politika

Kartelak jartzeagatik identifikatu

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak sinatutako euskal preso politikoen eskubideak aldarrikatzeko kartelak jartzen ari zirela, hiru oriotar identifikarazi zituen poliziak abuztuaren 24an. Ondorioz, Erztzaintzaren Zarauzko egoitzan agertze-ko deia jaso zuten eta han jakinarazi zieten gaia Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utziko dutela. Terrorismoa goratzea egotzi diete eta auziak aurrera eginez gero, sei urtera arteko kartzela zigorra jaso dezakete.

Merkataritza

Diru-laguntzak

Orion lokalak berritzeko eta informatika ekipoak erosteko diru-laguntzak eman-gotitu Eusko Jaurlaritzak. Interesatuak irailaren 30a baino lehenago egin beharko dute eskaera. Informazio gehiago nahi duenak, berriz, 943 33 30 49 telefono zenbakira deitu beharko du.

Garraioa

Miloi bat joan-etorri autopistan

2009ko abuztuan ireki zenetik miloi bat ibilgailuk baino gehiagok erabili du Orioko autopistako lotunea. Pixkanaka, gainera, gora egin du erabiltzaile kopurua: abuztutik abendura 2.700 ibilgailu pasatu ziren egunean; 2010eko abenduan 3.500 eta 4.000tik gora 2010eko uztaillean. Orioko lotunea erdi eta erdi erabili da bi noranzkoetan: Oriora etorritakoak 539.000 izan dira eta Donostiara joandakoak, 519.000.

Erlijioa

Ramadana bukatu dute

Abuztuaren 12an hasi eta irailaren 9arekin bukatu zuten musulmanek -40 bat lagunek, Orion- Ramadana. Eguzkiak eguna argitzen duen bitartean, hilabetez jan, edan eta sexu harremanik izan gabe egon dira. Aurtun, gainera, udan izan da -20 urtez behin tokatzen da udan- Ramadana eta edariari batez ere uko egitea gogorragoa izaten da.

Hezkuntza

Haurrak Maria Maestrara

Aurtengo azaroan edo abenduan, edo 2011ko urtarrilean edo otsailean haurra Maria Maestra haurreskolan hastea nahi nahi duten gurasoek irailaren 30a baino lehen eman beharko dute izena: 09:30etik 11:00etara edota 13:00etatik 15:00etara. Informazio gehiago 943 89 06 25 telefono zenbakian.

Eskerrak eman dizkie Asanbladak gaztetxearen asmoa babestu dutenei

Inaugurazio festa egin zuten Etxeluzeko gaztetxea ezagutzera emateko, eta han zer egin nahi duten azaltzearekin batera, gazteek herriarentzat egindako gune bat izango dela esan zuten

Loreak udaberrian jaiotzen badira ere, Orioko gaztedia uda garaian, uztailaren hasieran, loratu da, Etxeluzea eraikina okupatu, eta gaztetxe bihurtu zutenean; izan ere, jolas eguna, umore gaua, hondartza-bolei txapelketa bezalako hainbat ekintza antolatu dituzte hori ospatzeko. Hala ere, irailean sartu arte ez dute inaugurazio ekitaldirik egin. Herriko Plazan elkartu ziren Gazte Asanbladakoak hilaren 3an, herriko gazteei zein gaztetxekoei babesa ematera gerturatutako beste hainbat herritarrekin batera. Guztira, 200 lagun inguru izan ziren.

Txalaparta doinu, bertso eta irrintzien ondoren, hainbat gazte aurretik prestatuko dantza egin zuten *Kolore, kolore* kantuen erritmora. Lore asko, askotarikoak eta koloretsuak daude egun gaztetxeko lorontzian eta gazte asanbladakoek adierazi zutenaren arabera, *anitza, koloretsua, parekidea, naturaren eta euskararen alde egingo duena...* izan nahi du gaztetxeak. Gaineratu zuten herritarrentzat irekia izango dela eta, gazteentzat baino, gazteek egina.

Bat eginda mugimendua indartu

Plazan elkartu zen jendeak argazkia egin zuen gero, eta gaztetxea ireki eta dituzten asmoak jakinarazi zituzten Gazte Asanbladako bi kidek. Egitasmoa sendotzea eta herriko gazte mugimendua indartzea dituzte hasierako helburu.

Orain arte lotura handirik izan ez ba-

Eraikina ordenazio barruan sartu eta jabearekin salerosketa aukerak negoziatzea dira eman beharreko hurrengo pausoak

dute ere, herriko gazteak, pixkanaka, gaztetxearen inguruan elkartzea lortu nahi dute, dituzten gustu eta beharretatik sortutako ekintzak antolatzeke.

Gaztetxeko negoziaketa taldeak politikariek eta etxearen jabearekin hitz egiten jarraitzen du, Etxeluzearen egoerari irtenbidea emateko. Gaztetxekoek diotenez, garbi daukate zein diren hurrengo pausoak: eraikina ordenazio barruan sartu eta jabearekin salerosketa



Adin eta mota guztietako herritarrak elkartu ziren plazan gaztetxeari babesa emateko. KARKARA

aukerak negoziatzea: *Kostetako ardura-dunak baimena ematen ez badu? Lortuko dugu, kostatzen bada... Baina alkateak gehiengoaren ordezkari izan behar du, Orioko Udala gaztetxearen alde dagoelako.*

Etxeluzeraino joan ziren kalejiran gero, eta herritarrei gaztetxea ezagutzeko aukera emateaz gain, mokadutxo egiteko tartea ere izan zuten; etxera itzuli aurretik hara gerturatu eta ekintzetan parte hartzera gonbidatu zituzten bertaratutakoak.

Prestaketa lanetan

Negoziatzea da hurrengo pausoa, baina bien bitartean gazteak ez daude geldirik egoteko. Hileko azken asteburuan izango diren Gazte Festak antolatzen ari dira. Besteak beste, baltsa jaitsiera, danborrada, txirigotak, kontzertuak... izango dira.

Gaztedia loratzen ari dela eta lorea da gazteek beren lekua aldarrikatzeko eta presentzia iragartzeko aukeratu duten irudia. Aurrerantzean ere loreak martzotzen eta itsasten jarraituko dute kaleko hormetan.

GAZTE FESTEN PROGRAMAZIOA

Irailak 24, ostirala

18:30 Baltsa karrera, anbulatorioetik plazara

21:30 Piraten danborrada

22:00 Txupinazioa

23:30 Kontzertuak

Irailak 25, larunbata

10:30 Haurrentzako jolasak

Txurumuski taldearekin

Ondoren: Txotxongiloak

13:30 Paella lehiaketa

14:30 Bazkaria

Ondoren Txirigotak

19:30 Kantu-poteoa, Loretxon hasita

22:30 Kontzertuak

Irailak 26, igandea

07:30 Diana gazte txarangarekin

11:00 Herri kirolak eta hamaiketakoa

18:00 Kontzertu akustikoa

19:30 Gazte festetako argazkien emanaldia

▷Ekitaldiak Herriko Plazan izango dira

Oiana Blanco aukerarik gabe itzuli da Tokioko munduko txapelketatik



Oiana Blanco Yogui Stadiumean. BASQUE TEAM

Iaz Rotterdamen (Holanda) munduko txapelketako finalean aurkari izan zuen Fukumi japoniarrak lehiaketatik kanpo utzi du judoka oriotarra lehenengo borrokaldian

Europako txapelketan brontzezko domina lortu ondoren, Tokioko Yoyogi Stadiumean jokatuako munduko judo txapelketan izan da Oiana Blanco. Lehian bete-betean sartzeko denborarik gabe itzuli behar izan du etxera Blancok.

Irailaren 12an izan zen Blancoren txanda, 48 kilotik beherakoen mailan. 2009an Rotterdamen, munduko txapelketan, lortutako zilarrezko domina defendatzeko aukera zeukan. Txapelketarako zozketa, ordea, ez zen oriotarraren aldekoa izan. Bere mailan izena eman zuten 51 judokaren artean, aurreko mundialean berarekin batera finalista izan zena egokitu baitzitzaion aurkarilehenengo borrokaldirako. Iaz bezala, Tomoko Fukumi japoniarrak irabazi zuen Blancoren aurkako borroka. Finalean, ordea, haren herrikide Haruna Asami egin zen urrezko dominaren jabe. Gainera, sistema berriak ez du txapelketan jarraitzeko bigarren aukerarik ematen eta

hortaz, txapelketa bukatuta, etxera bueltatu da Blanco: *Banekien oso borroka gogorra izango zela, iazko munduko txapelketako finalistak baikinaren elkarrekin aurka. Ehuneko ehun eman behar nuen, beraz, beroketak ongi egin eta sentsazio oso onak izan nituen. Atakean akats txiki bat egin nuen, ordea, eta hori baliatu zuen, hain zuzen ere, aurkariak niri aurrea hartzeko*— adierazi digu Oianak oraindik Madrildik etxera bidean.

Denboraldi berria prestatzen

Munduko txapelketa oso garrantzitsua izan arren, txapelketa bat gehiago dela ere esan du Oiana Blancok eta urtean zehar gehiago dauzkala. *Borrokaldia aztertu beharko dut, hau da, zein izan zen egingdako akatsa eta nola jokatu beharko nukeen. Ondoren, datorren denboraldia prestatzen hasi behar naiz gogorra izango baita txapelketa askotan parte hartuko dudalako, gaineratu du judokak.*

LABUR

Reala

Tokia dago oraindik Realatikustera autobusean joateko

Realak etxean jokatzen dituen partidak ikustera joateko autobusa antolatu dute zaleek. Partida hasi baino ordubete lehenago aterako da Oriotik eta norgehiagoka amaitutakoan itzuli. Denboraldi osorako bonoak 95 euro balio du eta liga hasi bada ere, oraindik toki batzuk libre daude autobusean. Interesatuak Salatxo tabernara jo dezakete izena emateko.

Atletismoa

Amilibia Munduko Kopan bigarren

Gelditu gabe dabil Nerea Amilibia korrikari aiarra. Lasterketa herrikoietan ez ezik, Euskal selekzioarekin mendi lasterketen Munduko Kopako probetan ari da eta sailkapen orokorrean bigarren tokian da. Italian, Dolomitetan, du hurrengo proba igandean; 43 kilometroko luzera eta 7.800 metroko desnibel metatua dituen lasterketa gogorra izango da. Proba bukatutakoan lehen hiruren artean egonez gero, bere ametsa betetz, Malasian, sumendi bat igo behar den lasterketan, parte hartuko du urrian.

Areto futbol

Denboraldia hastear

Udako oporrak bukatuta, irailaren 25ean hasiko du areto futboleko 2010-11 denboraldia Orioko Tabernak taldeak, Nazional B Ligan beste behin ere. Concepto-Creatch taldearekin neurtu beharko ditu indarrak larunbatean, Karela kiroldegian, 18:00etan. Maiatzaren 31 bitartean, 30 jardunaldi jokatu beharko dituzte oriotarrak; erdiak etxean eta gainerako erdiak bisitari, aurkariaren zelaian. Astebururo izango dituzte partidak. Taldeko entrenatzaile Alberto Casadoren hitzetan, mailari eustea dute aurten ere helburu.



Zelaitik harmailetara

Harmailetatik ikusiko ditut futbol partidak aurrerantzean. Akitu zait futbolarikiko nuen ilusioa, amaitu futboleko jokatzeko gogoa. Baina, baten batek pentsatu badu ere, ez dabilkit ezkontzeko edo amatasun proiekturik eskuartean.

14 urterekin hasi nintzen futboleko jokatzeko; Zarautzen egin nituen lehen urratsak. Bertan jaso nuen Realak hautatu ninduenaren berria. Zaila egiten zait elastiko txuri-urdinarekin igarotako sei urteak laburtzea, baina izugarriak izan dira. Lagun talde mundialak inguratu egon naiz, eta garaipen garrantzitsurik eskuratu ez dugun arren, munduko aldagela hoberenaren titulua gertu izango dugun susmoa daukat.

Orain urte batzuk, zuetako askori ia ezinezkoa egingo zitzaizuen emakumeak eta futbolarlazioz atzea. Baina, iraganak iragan, haxe da errealitatea, eta zorionez futboleko nahiz beste kirol askotan aritzeko ateak zabaldu zaizkigu. Gizartea eta kirol ohiturak aldatu dira. Aitonarekin bizitzen nuen pasarte bat datorkit burura, berak ez baitzuen ulertzen partida aurretik txuleta eder baten ordezkariak jatea.

Baina, parekidetasuna lortzeko lan handia dago egiteko. Ezinbestekoa da jarraitzaileen eta komunikabideen bultzada. Hori da gaurko nire asmoa, nola-

baiteko laguntza eskaini didazuen guztiei nire esker ona adieraztea.

Harmailetan izaten nituen beti alaba jokatzeko hasi zen momentuan futbolarle egin ziren gurasoak. Ziurrenik bere sentituko dute hutsunerik handiena, partidak aitzakia hartuta, gustura bidaiatzen baitzuten kanpora. Baina ez dakizue nolako ilusioa egiten zigun kanpoko partidetan jarraitzaileak ikusteak! Eta gurasoen ondoan izaten zen partida kaskarren osteko zaputzak jasatea tokatzen zitzaion zarauztarra ere.

Koadrilakoak ere agertzen ziren tarteak. Hori bai, hamaiketako bezala Txokolateneko semeak patata tortilla eramaten zuen egunetan ohi baino gehiago pilotzen ziren. Hala ere, Superligara igotzeko fasean pankarta eta txarangarekin azaldu ziren egun hura izango da nire bizitzan ahaztuko ez dudanetarikoa bat. Izugarria izan zen, giro aparta sortu zuten eta, gainera, Balearen eguna zela eta baserriar jantzita azaldu ziren.

Partidak ikustera gerturatu izan diren oriotarrekin ere gogoratzen naiz momentuotan. Harmailak jendez beteta ikusteak asko laguntzen du, motibazioa sortzen du, eta tartean ezagunak direla konturatzeak indarra ematen du. Horiez gain, harmailetan ikusi ez arren bertan egongo balira bezala jarraitzen ninduten zaleak ere banituen. Komentarioen bat egin eta animoren bat edo beste eskaintzen zidaten kalean gurutzatzen nituen bakoitzeko.

Garaipen handirik gabe hartu dut erretiroa, baina futbolar eman dizkidan momentu onak eta lagunak izango ditut garrantzizko puntuak. Kontu horiek kontatuko dizkiet bilobei, eta gustu handiz erakutsiko dizkiet anaiak ateratako ehunka argazkiak eta *Gaztezulon* eta KARKARAN Patxik egindako elkarrizketak ere. Besarkada bana.



LABUR

Pilota

Galarraga jo eta ke

Txapelketaz txapelketa dabil azken aldian Eneko Galarraga pilotaria. Irailaren 14an Lezoko txapelketa irabazi zuen: 22-14. Asteazkenean ere bazuen partida Galarraga analetan gazteenak: Bergara Hiria txapelketako partida. Ostegunean, irailaren 16an, berriz, Altsasuko Santo Cristo txapelketako finala jokatzeko zen, 17:00etan hasita.

Pilotarekin jarraituz, Aginagako Xabier Errasti eta Orioko Ibon Aranalderen kontra aritu ziren irailaren 24an, Aritz Lertxundi eta Aimar Galarraga oriotarrak, Aginagako pilota txapelketaren baitan. Lehia bizia eta polita ikusi zen, eta Aranaldek eta Errastik irabazi zuten. Txapelketatik kanpo geratu dira, beraz, Galarraga eta Lertxundi. Azkenik, galarragarrek jakinarazi dute Orioko haurrak hasiak direla pilota saioekin: astearte eta ostegunetan elkartuko dira herriko frontoian, 17:00etatik 19:00etara.

Futbola

Esnaola Irunera, Pinto Deniara

Aurreko denboraldian Realean aritutako losu Esnaola defentsa oriotarra Murtziara joatekotan egon zen arren, ez zen akordiorik lortu hango klubarekin eta Bigarren B mailako Real Union taldean hasi du denboraldi berria. Realak utzita jokatuko du urtebetez Irungo taldean. Bestalde, Marbella taldean aritu den Jorge Pinto Tamayo erdilaria Alacanteko Denia futbol taldeak fitxatu du eta honek ere Bigarren B mailan jokatuko du hasi berri den denboraldian. Aurrez Benidorm, Granada eta Baza taldeetan ere aritu da futbolaria oriotarra.

Eskubaloia

Unanue Galiziara

Anaitasuna utzi eta Pontevedrako Teucro taldean arituko da eskubaloian jokatzen Mikel Unanue oriotarra aurtengo denboraldian. Urte baterako sinatu du 27 urteko oriotar gazteak.

Garaipen handirik gabe hartu dut erretiroa, baina futbolar eman dizkidan momentu onak eta lagunak izango ditut garrantzizko puntuak

Goizeko
KAFETEGIA
☎ 943 83 28 55
Aita Labundi, 33 benta ORIO
Autobus parada ondoan

HAIZE BERRI
Aholkariak, jantziak, kateak
Plater konbinatuak,
bobotak,
hamburgerak,
vassak,
agurak...
ETA OTORRA OPIKATZAKO BERTSULARI
Calle Lardizabal, 10. 48101 BILBO. Tel. 943 83 28 55

Iaroko bakailaoa
daukagu
**ITSAS
MENDI**
gurtziak
Calle Gurtien, 5 Tel. 943 24 07 74 Orrio

ITZALA
kartak jokatzeko
agurak
Tel. 943 83 12 59

“Etortzen denari erakutsi nahi diogu zer den zaldi bat edukitzea”

Leire Unanue eta Unai Lazkano

Urdanetako Pagadi zalditegiaren jabeak

Biak zarautzarrak ditugu: Unai, Pagadi baserrian jaioa eta Leire, kaletarra; bien artean egokitu dute Pagadi Zalditegia, Aiako Urdanetan. Lana banatzeko unean, Unairi jendearekin aritzea hobeto omen doakio eta Leireri, berriz, animaliak zaintzea

PAT COWIE

Nolatan jarri duzue zalditegia?

Unai: Gure baserrian, behiak kendu ondoren, ardiak eta ibiltzeko zaldiak ekarri genituen eta, azkenean, zaldi dezente bildu genituen.

Leire: Animaliak asko gustatzen zaizkit, eta elkarrekin hasi ginenean hasi nintzen zaldian ibiltzen.

U: Hasieran lagunekin ibiltzen ginen. Gero, familiaren bidez izan genuen lekua egokitzeko aukera, eta orain dela 3 urte erabaki genuen zalditegia antolatuko genuela jendeari aukera emateko parkea ezagutzeko eta zaldi gainean ibiltzeko. Urolako Udal Elkarteko lehiaketa batean irabazitako sariak bultzatu gintuen aurrera jotzera.

Zein da, bada, zuen filosofia?

U: Hipika handien estilotik aldendu nahi genuen. Egunak ukuiluan pasa ordez, zaldiak aske ditugu zelaian. Egurraldi txarrarekin sartzan ditugu barrura, haien onerako, ez gure erosotasunagatik. Bizikleta alokatzera balitz bezala jotaten dira batzuk zalditegira; guk erakutsi nahi diegu zer den zaldi bat edukitzea: zelaira joan, zaldia ekarri, lotu, eserlekua jarri, azazkalak garbitu... gero ordubetez mendian ibili.

Ogibidetzat duzue?

L: Ez! Ni irakasle naiz eta Unai soldadorea, baina asteburuak hemen ematen ditugu. Gurea enpresa txikia da, mendi ibilbideekin kitatzen badugu zaldiek sortutako gastua, ondo. Momentuz, 14 zaldi ditugu: jana, perratzailea eta albai-

teroa. *Hobby*-a ere bada, ez dirua egiteko negozioa.

Zer moduz joan zaizue aurreneko uda?

L: Turismoa bultzatzeko Aian sortu den elkarteari esker, nekazal etxetik etorri zaizkigu bezeroak, neurri handi batean: kataluniarrak, valentziarrak eta bertakoak ere bai.

Inguru oso egokia dugu, luxua da zalditegi bat jartzeko. Hemendik Pagoeta parkera 200 metro daude asfalto gainean; gainerako guztia pistetan egiten dugu, arriskurik gabe, izugarrizko paisaje inguratuta. Jendea liluratuta gertzen da.

Nolako zaldiak dituzue?

U: Gehienak arabiarak; hemen jaiotakoak dira. Handiak direlako, erabaki dugu 10 urtetik gorakoek bakarrik erabiltzea zaldiak, eta ez ume txikiek.

Edurne Barriola tolosarra dugu zal-

“Ukuiluan eduki beharrean, zaldiak aske ditugu zelaian. Bakarrik eguraldi txarrarekin sartzan ditugu barruan, haien onerako”

“Erraza da ukuiluan gordetzea, dena kontrolpean izatea, baina zaldiak aske behar du izan eta taldean”

diak hezteko eta ikastaroak emateko; betiere, 8 urtetik gorakoentzat. Zorte handia izan da bera topatzea, izugarriko abildadea baitu eta harrigarria da ikustea zer erraz lortzen dituen gauzak zaldiekin.

Zaldiekin lan egiteko, zer da garrantzitsua?

Unai: Zaldiaren berezko senari kasu egitea, nahiz eta horrek lan gehiago eman. Erraza da ukuiluan gordetzea, dena kontrolpean izatea, baina zaldiak aske behar du eta taldean. Behin, ekarri ziguten urteak ukuiluan pasatako zaldi bat, eta ez zekien belarra nola jan ezta zelaian egoten ere: bazter batean bilatzen zuen babesa, geldi- geldi.

L: Eta zaldiaren aurrean tentsioa sentitzen duena ez derrigortzea; denbora hartzen uzten baduzu, lasai eta barrez bukatzen du bisita. Ahal dela, bakoitza bere erritmoan, bai zaldia, bai bisitaria.



KARKARA



Batez ere, inguruko jendearekin egin da lan aurtengo udan. KARKARA

Eragina izan du krisiak herriko udako turismoan

Uda garaian zerbait gora egin du turismoak gurean. Iazko denboraldiarekin konparatuz, gustura agertu dira turistak hartzen dituzten lekuetako batzuk; ez, hain gustura, aldiz, beste batzuk

Turismoari begiratzuz gero, hala moduzko uda izan dugu aurten. Nekaturren datuen arabera, uztailean eta batez ere, abuztuan, txukun ibili dira Aiako nekazturismoak: %58,43 bete ziren uztailean eta %87,76 - Gipuzkoako batez bestekoa baino zertxobait altuagoa - abuztuan. Arrutiegia auzoko Azkue Etxeak, adibidez, ez du krisia apenas nabaritu; betiko moduan izan dute jendea: udan gainezka; eta udazkenarekin jaitsieraren zain.

Jatetxeei dagokienez, gorabeherak izan dira lekuaren arabera: iaz baino otordu gehiago eman dituzte, esaterako, Izeta sagardotegian eta Altxerrin, kanpotarren etorria txikiagoa izan bada ere, inguruotako bezeroak ohi baino gehiago

izan dira eta. Kanua erretegia ere gustura dago egindako lanarekin. Portuk, aldiz, zertxobait behera egin du; jende gutxiago izateaz gain, bakoitzak egindako gastua ere jaitsi egin dela esan digute.

Igoera txikia izan du Pagoeta parkeak ere: 2.600 bisitari hartu zituen uztailean Iturrarane; 2.174, abuztuan. Agorregira, berriz, 1.760 lagun hurbildu ziren uztailean eta 2.157, abuztuan. Taldekako jardueretan nabaritu dute jaitsiera, Udalek diruz lagundutako udalekuak nabarmen gutxitu direlako.

Udal igerilekura iaz baino herritar gehiago hurbildu da eta hortaz, bono gehiago saldu dira; aldiz, eguneko sarre-rak dezente jaitsi dira: 2.000 bat txartel saldu dituzte.

LABUR

Heriotza

Justina Etxeberria

Aiako emakumerik zaharrena zenak betiko utzi gintuen irailaren 5ean -goian bego-. Justina Etxeberria Azkue, Uzkudun baserriko alaba, irailaren 5ean hil zen, 101 urte zituela. 1909ko maiatzaren 14an jaioa, 10 seme-alaba, 27 biloba eta 30 berbiloba utzi ditu Justinak.

Nekazaritza

Orortegi eta Odriozola sarituak

Irailaren 5ean Legazpiko Gipuzkoako Artzain Gazta lehiaketan bigarren saria lortu zuen Orortegi baserriko gaztak. Duen kategoria eta zapore ona azpimarratu zizkieten epaileek Aian ekoitzitako gaztari. Orortegikoa ez zen, gainera, Legazpiko lehiaketan saria jaso zuen Aiako gazta bakarria izan, Jose Luis Odriozolak seigarren saria eskuratu baitzuen.

Kultura

Argazki lehiaketa

Irailaren 30ean bukatuko da 2010eko Aiako argazki lehiaketan parte hartzeko epea. Herritarren aurpegierak ditu aurtengo edizioak ardatz eta argazki originalak bakarrik hartuko ditu Udalak lehiaketarako. Gehienez ere, lau argazki aurkez ditzake parte hartzaile bakoitzak. Iaz ala aurten ateratakoak izan behar dute nahitaez eta paperean, eta fotoak digitalak izanez gero, CD batean, aurkeztu beharko dira. Interesatuak, kultur etxean utzi behar dituzte argazkiak.

Kirola

Aiako Realzaleak

Realarekiko duten zaletasunak batuta, Aiako Realzaleak peña sortu berri dute. Anoeta zelaian jokaturako partidetara joateko autobusak antolatuko dituzte. Realzale den eta elkartearren partaide izan nahi duen guztiari dei egin diote antolatzaileek. Interesa duenak 943 05 88 69 zenbakira deitu beharko du.

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

MEKANOGRAFIA IKASTAROAK AIAN

Ordenagailura egokiturako mekanografia ikastaro berriak emango ditu M.A.I. enpresak Aian.

Ikastaroko ardurategi, prezioen eta edukiaren herri emateko bisitak egingo dituzte enpresako langileek datuaren egonotari.

943 00 40 30 edo 943 37 69 79 telefono zenbakietara dei dezakete informazioa jaso nahi dutenak.

Euskadiko ikas-entzunezko mekanografia. Orio etartiden, 10. 309. bulegoa. Lasarte-Orio

Aizpeko Andre Mariaren ermita

Aizpeko eliza ospetsuan, tradizioaren arabera Ama Birjina agertu zen tokian ematen dira oraindik ere mezak. Esaten denez, hori izan zen hasiera bateko parrokia, nahiz eta lehen datu idatzia 1530ekoa izan. Badakigu XVI. eta XVII. mendeetan bi eta hiru serora ere egon zirela aldi berean.

Hiru dira bertako erretaulak: erdikoan Aizpeko Andre Mariaren irudi zoragarri bat dago, XV. mendekoa; baita san Inazioaren irudi bat ere; eskuinetara san Zeledonio eta ezkerretara san Emeterio; goian Kristo gurutziltatua.

Eskuineko erretaulan santa Anaren irudia dago; goian santa Maria de la Cabeza, san Isidro nekazariaren emaztea. Ezkerrekoan san Antonio Abad, san

Isidro eta Bertutearen eta Justiziaren alegoriak. Erretaula nagusiaren alboetan, san Joakin eskuinetara eta san Jose ezkerretara. Erabat tailatutako egurrezko zutabe eder batek eusten dio koruari.

XVII. mende hasieran ermita zaharberritu zuten, ia erorian baitzegoen. Burualdea luzatu eta albo batean ate bat jarri zitzaion. Lanek 6 urte iraun zuten.

Haurdun zeudenak santa Anarengana joaten ziren erditze ona eskatzeko, eta

kandelekin eta limosnekin emandako laguntza eskertzerantz itzultzen ziren. Oraindik ere baserritarrak san Isidro-rengana joaten dira ganadua babesteko eskatzera, batez ere umea egiterakoan.

Aldarearen alde batean zulo bat dago. Zulo horretan burua sartzen da eta sal-bea errezatzen buruko minik ez izateko; ondoren gurutze txiki bati muin ematen zaio eta limosna ematen da.

Aizpeko Andre Mari egunean, irailaren 8an, auzokoek salda prestatzen dute mezatarajoaten direnentzat. Aurreko egunetan bederatziruena egiten da: goizean meza eta gauean errosarioa eta nobena. San Anton eta San Isidro egunetan ere meza bertan izaten da.

(Aguirre Sorondoren *Aia*, 1.000 urteko oroimena liburutik hartutako datuak)

Aizpeko Andre Mari egunean, auzokoek salda prestatzen dute mezatarajoaten direnentzat



Txokoak eta jendea
Uda bukaera,
lagunen agurra

Azken bi hilabeteotan gure artean izan ditugu Salam eta Lehibid sahararrak. Urteak daramatzate *Vacaciones en paz* proiektuaren bidez uda gure herrian pasatzen. Ezagunak dira, dagoeneko, denon artean eta lagun asko eta asko egin dituzte. Lehibidi egindako agurrean kontentu ageri dira guztiak.



OINEZ KONTXAKO ESTROPADA IKUSTERA

Mende erditik gora urte ditu zenbaki honetan dakarkizuegun argazkiak. Kontxako estropadak ziren Donostian eta makila eskuetan hartuta, lehia ikustera Igeldora joan zen Arruti Lertxundi familia handia.

Behin norgehiagoka bukatuta, betiko gertuko zen erretratua atera zieten hurrei. Gurtura itzuliko zen seguru asko familia osoa etxera. Izan ere, urte hartako bandera prezia-tua, Oriorentzat izan zen. Ordura arteko 12.

Kontxako bandera jaso zuen.

Ia guztiek abizen berak badituzte ere, lau etxetako lehengusuak dira –Lertxundiko lau ahizpekin ezkondu ziren Arrutineko lau anaia–. Hauexek dira argazkian ageri direnak: Juliana, Kandida, Manuel, Txomin eta Anjel anaia-arrebak; Manuel, Kontxesi, Esteban, Kristino eta Joakin; Maria, Felix eta Martzelino; eta Jesus.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: FELISA ARRUTI]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**Orioko
Herrir
Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

islada

RESERVA ZARAGOZA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Sabaren kalea, 2 behean Oriu 20810

Tel: 943 131 858

e-maila: isladario@hcmall.com

MEKANOGRAFIA IKASTAROAK ORION

Ondenagailuak egokituzko mekanografia ikastaro berriak emango ditu M.A.E. enpresak Orion.

Ikastaroko arduruekin, prezioen eta edukien berri emateko bisitak egingo dituzte enpresako langileek datozen egunotan.

943 00 40 30 edo 943 37 69 79 telefono zenbakierara.

Idi de zikete informazioa jaso nahi dutenak.

Euskoaldea ikas entzuteneko mekanografia. Oriu etorbidea, 10. 389. bulegoa. Lasarte Oriu

**iñaki argazkiak
caperochipi**

ezkontzeka asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak

659378751

ikapero@ikapero.com

KOLON TXIKI

Herriko Enparantza, 4

ORIO

Tel. 943 83 00 44



Kontxako gazi-gozoak dastatuta, Ligareen bila orain!

Askorako ematen ari da 2010. urteko arraun denboraldia. Fin ibili dira emakumezkoak eta puntaren puntan dabilta gizonzkoak. Kontxako estropadaren biharamunean, **pil-pilean daukagu oraindik San Miguel Liga**. Idatzizko errepasoa emateaz gain, argazkirik esanguratsuenak bildu ditugu.

TESTUA: LORE BERASALUZE
ARGAZKIAK: I. AGIRREAZALDEGI, L.
BERASALUZE ETA A. G. DE TXABARRI

Historia egin dute aurtun Orioko Arraun Elkarteko emakumezkoek Arraunerako grinak elkartuta, kolore horia defendatzen duen trainerua osatu dute lehenengo aldiz. Adin

tarte zabala dute beren artean –40 urte ditu zaharrenak eta 16 gazteenak– eta bertakoak, etxeakoak, dira gehienak. Gogoan hartzeko izenak izango dira: Itziar Olasagasti, Leire Etxeberria, Irati Lertxundi, Leire Alustiza, Ainara Manzisidor, Eder Etxeberria, Sarai Lizaso, Maria Coloma, Olatz Aizpurua, Ainhoa Pozo, Ainhoa Gozategi, Enara Beloki, Maite Arruti, Nadeth Agirre, Lide Lertxundi, Ainhoa Illarramendi, Garazi Oliden eta Izaskun Manterola.

Antxon Belokiren esanetara, gogoz

hasi zuten denboraldia, gogor entrenatuz, lehorrean eta itsasoan. Eta egindako lanahasia da fruituak ematen; uzta goxogoxoa: traineruen estropada bateko aurreneko bandera ekarri zuten Oriora abuztuaren 21ean: Erandioko Emakumeen 1. Bandera. Txalo zaparrada eta txaranga artean astindu zuten bandera, gorde ezinezko irribarre zabala alderik alde ahoan zutela, udaletxeko balkoian.

Kontxaneresaiatu dira

Martxoaren 21ean jokatu zuten emaku-

mezkoek aurreneko estropada Deustun eta ekainaren 26an ekin zioten Gipuzkoako Ligari. Bost traineru aritu ziren lehian, abuztuaren 20a bitartean egingako 5 estropadetan: Getaria-Tolosa, Zumaiia, San Juan, Hondarribia eta Orio. Laugarren bukatu zuten txapelketa, Hondarribiaren aurretik. Hala ere, azpimarratzekoa izan da hasieratik bukaerara arte izan duten garapena, aurkariengana urreratuz, denbora tarteak janean, joan baitira pixkanaka.

Kontuak horrela, esperantzaz beteta iritsi ziren neskak irailaren 11n, Kontxako estropadako sailkapen estropadara. Egun borobila izanez gero, barruan, bandera jokatzeko moduan, ikusten zuten beren burua. Denekezin izan lekuri, ordea, eta zoritxarrez kanpoan geratu ziren, 5. eginda, sailkatzetik segundo eta erdira.

TKE Liga lehiakorra

Fin hasi zuen Mirotsa traineruak 2010eko denboraldia. San Miguel Liga eta Kontxako bandera irabazteko gogoz zegoela erakutsi zuen uztaillean, aurreneko bi estropadak irabazita –Bilboko Seat Bandera eta Donostian jokaturako Movistar Bandera–. Kofradiaren XVI. ikurrina ere astindu zuten herriko plazan. Zarauzko estropada ere bere egin zuten Joxean Olaskoaga Aizperroren mutilek eta, tradizioari kasu eginez gero, Kontxako banderak gurea behar zuen.

Lehia estutzen joanda, ordea, eta Ligako garaipena ekartzea ere zaildu egin zaio Oriori. Bi estropadaren faltan –hilarren 18an, Bermeon eta irailaren 19an, Portugaleten– sailkapenean aurre hartu dio Urdaibaik eta 2 puntuko alde du.

Lehiakortasun ikaragarritzko TKE Liga honetan irabaztea ez da dena, ordea. Bukaera gazi samarra izaten ari bada ere, gustura egoteko moduan daude gure arraunlariak. Daukaten guztia eman dute, egun ona ala pattala izan, haizea alde ala kontra izan, eta Oriok hori baloratzen ikasi egin du azken urteotan.

Donostian eromena

Beste putzu bateko urak dira baina Kontxakoak. Bigarren denbora onena eginda –San Juanen atzetik– sailkatu zen Mirotsa Kontxako estropadan aritzeko.

Urdaibai, Pedreña eta Hondarribiaren batera, bigarren txanda egokitu zitzaion, irailaren 5ean jokaturako lehenengo jardunaldian. Denbora bikaina egin zuten aurreko txandako Kaikuk eta San Juanek eta argi geratu zen bandera esku artean izan nahi zuen ahalegin handia egin beharko zuela. Epaileak bandera zuria jaitsi eta estropada hasteko agindu zuenean, ez zen oriotarren ar-

“Historia egin dute aurtengoan Orioko arraun elkarteko emakumezkoek. Arraunerako grinak elkartuta, kolore horia defendatzen duen trainerua osatu dute lehenengo aldiz”

“Traineruen estropada bateko aurreneko bandera ekarri zuten emakumezkoek Oriora abuztuaren 21ean: Erandioko Emakumeen 1. Bandera”

“Fin hasi zuen Mirotsa traineruak 2010eko denboraldia. San Miguel Liga eta Kontxako bandera irabazteko gogoz zegoela erakutsi zuen uztaillean, aurreneko bi estropadak irabazita”


“Esperantzaz beteta iritsi ziren neskak irailaren 11n, Kontxako estropadako sailkapen estropadara. Egun borobila izanez gero, bandera jokatzeko moduan ikusten zuten beren burua. Zoritxarrez, kanpoan geratu ziren”

“Txandako bigarren egin zuen Oriok Kontxako aurreneko igandean eta justu-justu sartu zen ohorezko txandan. Bigarren jardunaldian, berriz, olatuak bata bestearen atzetik hartuta, sekulako barrurako luzea eginda, ohorea berreskuratu zuen, txanda irabazi eta sailkapen orokorrean bigarren jarritz”

“Hamaika urte Orioko Arraun Elkartearen tostetan pasa ondoren –azken bost urteetako entrenatzailea ere izan da–, agur esango digu Joxean Olaskoaga Aizperrok aurtengo denboraldia bukatuta”



Irudi asko utzi dizkigu arraunak uda honetan ere. Gogor aritu dira gizonezko nahiz emakumezkoak entrenamenduetako saioetan, sasoi betean. Udaletxeko balkoitik banderaren bat edo beste astintzea ere tokatu zaie batzuetan, nahi baino gutxiagotan.



Ligako eta batez ere, Kontxako estropadetako argazkiak jaso ditugu: arraunlarienak eta zaleenak. Gure www.karkara.com web orrian bildu ditugu hemen kabitu ez zaizkigun irudietako batzuk, ederrenak eta xelebreenak iruditutako zaizkigunak.

ORIOKO ESKOLA ZABALTZEN ARIDA

Herritarrek ordezkatzeko zuten garai batean, trainerua: San Pedroko ontzian aritzen ziren sanpedrotarrak eta Oriokoan oriotarrak. Kontuak aldatuz joan dira pixkanaka eta egun nazionalitate eta herri ezberdinetako jendea elkarrekin dabil arraunean.

Orioko eskola ere zabalduz joan da. Herrian jaiotako hainbat arraunlari, entrenatzaile... gogor ari dira lanean beste koloreak defendatuz, etxean ikusi eta ikasitakoak irakasten, zabaltzen. Horiek guztiak bildu nahi izan ditugu hemen bihotz horia duen herrian bizi eta beste kolore batzuk jantzita, arraunlari eta arraunzale porrokatuak direlako:

Jose Luis Korta: makina bat taldetarik pasatakoa da ortzaikarra. Azken urteotakoak aipatzearen, Castrotik eta Zierbenatik pasata, Kaikun dabil egun.

Luis mari Olasagasti Luxia: 30 urtetik gora daramatza Zumaia entrenatzen.

Mikel Orbañanos: Hondarribiako tosetan bederatzigarren urtea du aurten. Entrenatzaile lanak ere bere gain hartu zituen hasieratik.

Mikel Olasagasti: 7 urte daramatza Zumaiarekin arraunean.

Gorka Puertas: Oriotik Hondarribiara joan zen eta han segitzen du gaur egun. 6. denboraldia du Mikel osabarekin.

Jon Salsamendi: arraunean eta entrenatzaile lanetan dabil Astilleron. 4. urtea du Kantabriako taldearekin.

tean oihi askorik entzun; ontziari begira, arraunlarietara indarra eman nahian geratu ziren zaleak, haiek egingo zutenaren zain. Urdaibaik azkar erakutsi zuen zertarako gai zen. Txandako bigarren egin zuen Oriok eta ohorezko txandan sartu zen, justu-justu bada ere.

Hori ikusten zen bigarren igandean Donostia. Olatuak bata bestearen atzetik hartuta, sekulako barrurako luzea eginda, ohorea berreskuratu zuen Miro-tza ontziak, txanda irabazi eta sailkapen orokorrean bigarren jarritz, Kaikuri eta sanjuandarrei aurreneko igandean irabazitako tokia kenduz.

Harrera ikaragarria egin zuten herriak arraunlarietara arratsean. Aurten ez da posible izan, baina datorren urtean aliron bat eta bestea jarraian izan ditzagun saiatuko dira arraunkariak berriz. Eta oriotar eta oriozaleak plazan bilduko dira, haiei harrera egiteko.

Mikel Portularrume Paorra: Korta entrenatzaile zela joan zen Portularrume Castrora. Han hiru bat urte egin ondoren, Urdaibaira aldatu zen. 3 denboraldi osatu ditu bizkaitarrekin.

Mikel Arostegi: Astilleroarekin aritzea erabaki zuen iazko denboraldian eta han jarraitzen du aurten ere.

Ibon Etxeberria: Hondarribiarekin dabil iaztik. Hainbeste zeresan eman duen aurtengo Kontxako karteleko protagonista izan da, gainera.

Mikel Martinez de la Hidalga: lehen urtea du Zarautzekin arraunean.

Mikel Makazaga eta Gorka Imaz: Zarauzko taldearekin ari dira horiek ere, Oriok baimena emanda.

Gotzon Iruretagoiena: aurten hasi da Zarauzko kolore urdinak defendatzen.

Josu Larrarte: Kaikuko tosetan dabil aiarra. Lehen urtea du TKE-n.

Nahiz Orion jaiotak ez izan eta Orioko traineruan ez ibili, gure artean bizi diren arraunlariak ere badaude, beste tosta batzuetan dabilzanak:

Igor Makazaga: bihotza arrosa du 19 urte San Juango ontzian daramatza pasaitarrak.

Miguel Millares: 3 urte daramatza gali-ziarak Bou Bizkaian arraunean.

Bestalde, KAE Ligan ere aurki daitezke oriotarrak: morez jantzita egiten dute arraun Ibon Gaztañazpik, Unai Amena-barrek, Endika Urangak -bina urte daramatzate- eta Igor Agirregomezkortak -lehen urtea du.

Agur Aizperrori

11 urte Orioko Arraun Elkartearen tosetan pasa ondoren -azken 5 urteetako entrenatzailea ere izan da-, agur esango digu Joxean Olaskoaga Aizperrok aurtengo denboraldia bukatuta. Hala jakinarazi zuen oriotarrak Kontxako estropadaren ondorengo ongi-etorrian. Malkoei eutsi nahian, erabat hunkiturik, eskerrak eman zizkien urte eder hauek eskaini dizkioten lagun eta adiskide guztiei. Erabaki gogorra izan zela eta, arren, errespetatzeko eskatu zuten Aizperrok plazan bildutako zaleei. Txalo zaparrada ederrarekin hartu zuten oriotar eta oriozaleek Olaskoaga. Aizperro ez jun zioen kartela ere ikus zitekeen jendetzaren artean.

Orio utziko badu ere, arraunarekin lotuta jarraitzeko asmoa adierazi zigun Joxean Olaskoagak, udaletxeko balkoitik sartu zenean.

Bihar ez etorri lanera!

Kontxako bigarren igandea-
rekin amaitu izan dira,
duela pare bat urte arte, ni-
retzat udako oporrak. Zo-
rionez edo zoritxarrez
ikasketak bukatu bezain laster lanean
hasteko aukera izan nuen eta lan mun-
dua ezagutzea erabaki nuen. Azken bi
urteotan abuztuko azken egunekin ba-
tera amaitu dira nire oporrak ere. Hala
ere, iraileko bigarren igandea beti izango
dut mugarri. Udako jaiei amaiera ematen
dio nolabait Donostiako estropadak.

Eta uda amaitzearekin batera bakoi-
tza bere errutinara itzultzen da. Lana
dutenak lanera, langabezia daudenak
INEMeko ilarara eta ikasten jarraitzeko
gogoia dutenak ikasgelara. Lan munduak
ez du azken urteetako garairik onena
bizi eta lanean gaudenok ere murrizketen
beldur bizi gara. Uda garairako egin-
dako kontratuak amaitzen dira irailean
eta langileen kopurua jaitsi egiten da.

Krisia aitzakia gisa hartuta behar bai-
no kaleratze gehiago izan dira gure ingu-

ruan. Hala ere, deigarria egin zait nagusi,
gestore eta, oro har, kargudunek era-
kutsi duten ausardia eza. Asko eta
asko ez dira gai langileari aurpe-
gira kalera doazela esateko.
Kontu horiek gogoratzen ari
naizela, urte hasieran ikusi nuen
Up in the air filma etorri zait gogo-
ra. George Clooney galaiak langileak
kaleratzen egiten zuen lan. Enpresariak
langilea kalera botatzen ausartzen ez,
eta Clooney kontratatzen zuen lan ziki-
na egiteko. Nork daki fikzioa errealitate
bihurtuko ote den ala ez?

Ez dakit halako enpresarik badagoen
ala ez, baina egotekotan ziur nago izuga-

**Zertarako balio digu hitz
egiteak elkar ulertzen ez
badugu edo
komunikatzeko
gaitasunik ez badugu?**



rrizko arrakasta izango lukeela. Nagu-
siarekin ondo moldatzen garela uste
dugu. Gure kontu txikiak konta-
tzen dizkiogu berari, bikotekidea
dela, haurrak direla eta berak
ere sekretuak kontatzen dizki-
gu. Elkarrekin zerbeza pare bat
hartzera joan gaitezke, Faceboo-
ken lagunak izan, baina benetako
ordua iristen denean, garrantzia duten
gauza horietaz hitz egitea kostatzen zai-
gu. Lan murrizketa izan daiteke gai tabu
horietako bat. Eta ez dakit paradoxa den
ala ez, baina komunikazio enpresetan,
oro har, barne komunikazioa negarga-
rria da. Zein hipokritak garen...

Pentsatzeko, arrazoitzeko eta hitz
egiteko gaitasuna dugu gizakiok.
Gaitasun horiek ezberdintzen gaituzte,
besteak beste, animalieganatik. Hala
ere, gizakiak gero eta animalia izaera
handiagoa duela uste dut. Zertarako ba-
lio digu hitz egiteak elkar ulertzen ez ba-
dugu edo komunikatzeko gaitasunik ez
badugu?

"JUAN LARRAZPI" ERAIKUNTZAK, S.L.
(Jon Arruti)

Baserietako igeltsaritza eta egurreko estrukturaren aditza

Etsen berrikuntzak:

- Etsen berrikuntzak
- Etsen berrikuntzak
- Etsen berrikuntzak
- Etsen berrikuntzak
- Etsen berrikuntzak
- Etsen berrikuntzak

Tel. 965 718 966 (Jon Arruti) Estropalea, 38-38 Ori

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiarako zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Koroak, eskalak, tranziakioak...

Araba kalea, 35. Zarautz

Tel. 943 88 94 37 / Fax: 943 88 48 41
e-mail: harraspit@tanatorio.net

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Oriz · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

LUXARBE
Igeltsaritza

Igeltsaritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoen eskatu konpromisoren gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

LURDES
ARRAZOITZAK

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

arrazoitzak
MIRANDA
Jon Aiestaran

Gaitza, eta, baita, eskadela...
belaunak, eta, baita, lanak
egitea, diskintza

Ordutegia bidet. 1 - 669 42 52 70 - ZARAUTZ

He apaitdegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - Irujo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel. 943 83 00 05 / 943 13 25 32

Bizitzaren koloreak

A

ccran, Afrikako Ghanan, nengoen. Hegazkinean oraindik. Jendea presaka gauzak hartu eta hegazkine-tik korrika atera nahian.

Aireportura atera eta hor hasten da Afrika. Pareta guztiak kolorez beteta, Ghanako bandera, telefono konpainien iragarkiak... Momentu horretan zabaldu nuen ahoa eta ez nuen bost egun berandugorarte itxi. Dena kolorez betea, jende pila, janari usaina, emakumeak haurra bizkarrean eta zakuak, oihalak, edo jan-edanez betetako ontziak buruan hartu eta saldu nahian, kotxe eta autobusen bozinaoak, hauts gorria...

Hiriburuan lau egun pasa ondoren, iparraldera joan nintzen, Sawla izeneko herri txiki batera, GKE batekin hainbat proiektutan parte hartzeko. Han ez zegoen autorik; autobusak hemen desguazera botatzen dituzten furgonetak ziren; animaliak leku guztietan: oiloak, behiak, ahuntzak, ardiak, kamaleoiak, tximuren bat... kalea denena da.

Ez dago komunik, sukaldeak etxe aurrean ikatzez piztutako suak dira. Batzuk ohean egiten dute lo, beste askok lurrean. Goizeko 5ak aldera jaikitzen dira eta lanean hasten emakumeak: familiarentzat gosaria prestatu, haur txikienez arduratu, arropak garbitu... gero, etxetik kanpo lan egiten dutenak, lanera! Jostunak edo ileapaintzaileak dira gehienetan.



Haurrak eskolara joaten dira; asko oinutsik nahiz eta lurra harriz, zaborrez eta erabilitako labanez beteta egon. Eguerdian, etxera joan eta arroza edo yamarekin egindako masa likatsu bat jaten dute. Ondoren, neskek etxeko lanak egiten edo gurasoei laguntzen jarraitzen dute; mutilak jolasten edo kalean nolabait dirua lortu nahian ibiltzen dira.

Gizonezko jostunak edo saltzaileak badira, baina gehienek eguna itzaletan pasatzen dute mila gauzen inguruan eztabaidatzen: Jainkoa, ekonomia, politika... emakumeak lanean dau-den bitartean.

Hala ere, gehien harritu eta izutu ninduen ospitala izan zen. Ez dago sendagilerik, erizai- nek egiten dute sendagileen lana. Ez dago nahikoa ohe gaixo guztientzat; ez maindire- rik; komunak eraikinetik kanpo daude; sendagai batzuk gizarte segurantzak ordaintzen ditu, beraz dohakoak dira gaixoentzat; txin- durri eta armiarmez beteta dago; gaixoen gelan norbait hiltzen bada, manta batekin estali eta gorpua gaixoen artean geratzen da, autoa hilotzaren bila etorri arte; ordu erdi, 2 ordu, 4 ordu, auskalo...

Inguru horretan igaro dut nire uda eta orain dela 15 egun bueltatu naiz; nire komuna, nire janaria, nire dutxa, nire ordenagailua, nire autoa eta abar errekuiperatu ditut eta haiek han jarraitzen dute euriaren ura jasotzen, dutxa- tu, garbitu, sukaldean jardun eta edan ahal izateko. Hala ere, gauza batzuk inbidia ematen didate: erlojurik gabe bizitzeak, gizarte sistema komunitarioak, beren gorputza mugitze-ko erak, koloreak...

Ni laguntzeko asmoz joan nintzen, baina Sawlak berdin jarraitzen du; niri, ordea, barrua mugitu zait. Esperientzia honek gure gizarte-ari buruz pentsarazi dit: nola bizi gara? Nola hezten ditugu gure haurrak? Zenbat gauza ditugu? Eta zer da benetan behar duguna? Zeri ematen diogu garrantzia?

Afrikara joan eta Europako alde txiroez konturatu naiz... zein dira garapena behar du- tenak?

Inguruko hotsak

A

iako elizako kanpaien doinu solemneak iragarri zuen aiara zaharrena zendu zela. Herritik zelaietara zabaldu zen: dan...

dan... dan... eta, barne-barnean, ezinezkoa ezer ez sentitzea. Ez da eliz kontua; hori baino sakonago ukitzen gaitun mezu bat da, soinuaren bidez jaso, gizarte-ko katean *link* bat joan egin zaigulako. Jarraian gurean aditzen ditugunak etorri zitzaizkidan gogora: festa eguneko suziri- en leherketak, ondoko baserri- tarrek txakurrarekin edo abereekin izaten dituen ha- serrealdiak, San Joan gau in- guruan ikusten ditugun suen keak isiltasunez goratzen...

Eta Orion biziko banintz, zeintzuk izango nituzke go- goan? Karroarena, sareak so- tora ekartzen dituztenean, trenaren *duuuu*, trafikoa, udalekue-ko umeen *Bota ura! Bota Ura! E!*...

Nork bereak izaten ditu go- goan, batzuk esanguratsuak, besteak kasualitatez edo gor- detakoak.

Elizako kanpaiak aditzen ari nintzela, buruan zapi bat jantzita zuen emakume ma- rokoar bat pasa zen nire au- rretik, eta galdera bat etorri zitzaidan burura: gizartea dela eta, noiz entzungo dugu Orioko mekitatik bidaltzen den mezu deigarria jendea otoitz egitera deitzeko?

Ni laguntzeko asmoz joan nintzen, baina Sawlak berdin jarraitzen du; niri, ordea, barrua mugitu zait. Esperientzia honek gure gizarte-ari buruz pentsarazi dit: nola bizi gara? Nola hezten ditugu gure haurrak? Zenbat gauza ditugu? Zer da benetan behar duguna?





Sagasti
LEIHOAK

NEREA MIRALLES
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orlo (Gipuzkoa)



FISIOTERAPIA: Gorka Arriola eta Nerea Miralles
NUTRICIONISTA: Gorka Arriola

sinergia investigación
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-gina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95



www.karkara.com

Albisteak, argazkiak, inkestak, agenda, zorion agurrak...

Fresko-fresko, zuretzat!

Gaia emanda Bizikletak espaloian ala errepidean

Zeresan handia sortzen duen gaia ekarri dugu atal honetara: nola arautu behar da oinezkoen eta bizikletazaleen arteko elkarbizitza?

Zarauzko adibidea



Oinez ikasten dugu aurrena; bizikletan ibiltzen, gero; kasu batzuetan, motoetara pasatzen gara atzetik; eta 18 urte betetzeko desiratzten egoten gara autoa erabili ahal izateko. Herrian dauzkagun bitartekoak ikusita, lehentasunak ere ordena horretan finkatu beharko lirateke; oinezkoa da preferentzia gehien duena; bizikleta, gero eta motorrak eta autoak, hurrenez hurren. Orokorrean, bi ibilbide mota bakarrik dauzkagu, ordea, eta ez lau: espaloiak eta errepideak. Nola kabitut hor denak?

Normalean, espaloian ibiltzen dira oinezkoak eta bizikletak; errepidean, motorrak, kotxeak, eta kasuan kasu, bizikletak ere bai. Ez du errepideak arazorik ematen gehienetan, beti ere dagozkion arauak errespetatzen badira. Espaloian, aldiz, kabitueztina izaten da oinezkoen eta txirrindularien artean.

Herri bakoitzak erabakitzen du nola arautu bizikleten eta oinezkoen elkarbizitza. Zarauzko kasuan, bi metro zabal baino gehiago izan behar ditu espaloiak, txirrindularia hortik ibiliko bada. Ez da beharrezkoa bizikletentzako propio markatutako bidea izatea. Bizikletak ibil daitezke oinezkoek lehentasuna duten bideetan; eta, jakina, bidegorrietan ere bai, ez badago debeku argi eta garbirik. Hori bai, txirrindulariak beti errespetatu beharko du oinezkoa: bere erritmora egokitu beharko du, arrisku edota enbazarurik sor ez diezaion. Abiadura ere, txirrindulariak berak neurtu beharko du, oinezkoari kalterik ez eragiteko.

Alboko herrian zehaztu duten araudiarekin jarraituz, bidegorririk ez dagoen ibilbidean, bizikletek errepidetik joan behar dutela dio; eskubiko erreia-

ren eskuinaldetik joan behar lukete. Ezingo dute espaloia, portxe eta paseoetatik ibili, horretarako baimen berezirik ez badute, behintzat.

Bide mistoetan, alegia, bizikletek eta oinezkoek konpartitzen dituztenetan-bizikletentzat prestatutako aldean ibili beharko du txirrindulariak.

Bestelako zenbait arau ere jasotzen ditu: musika edo irratia entzuteko aparatuek edo antzekorik ezingo dute eraman belarrietan, beren arreta oztopa dezakete eta.

Zirkulazioari dagokion azken puntua-ren arabera, tandem estiloko txirrindak kenduta, ezin izango du txirrindulariak beste norbait eskulekuan eserita edota gurgilen tximeletetan zutik eraman.

Bizikletak non utzi ere arautzen du Zarauzko araudiak: ezin izango dira, inolaz ere, zuhaitzean lotuta utzi; txirrinduak uzteko jarritako toki berezietan lekuri ez badago -edota horrelakorik egon ezean- beste tokietan utz daitezke, beti ere, oinezkoen edota ibilgailuen bideak edota ezkaratzeen eta denden sarrerak oztopatu gabe. Era berean, aurrez aipaturiko lekuetan edo denden erakusleihoetan kalterik ez sortzeko moduan utzi beharko dira.

Orion bidegorriak egin bitartean, bizikletarekin nola ibili behar den ikasi eta erakutsi beharko diegu seme-alabei, ilobei eta osaba-izebei.

Herri bakoitzak erabakitzen du nola arautu bizikleten eta oinezkoen elkarbizitza. Zarauzko kasuan, bi metro zabal baino gehiago izan behar ditu espaloiak, txirrindularia hortik ibiliko bada. Orion bidegorriak egin bitartean, bizikletarekin nola ibili behar den ikasi eta erakutsi beharko diegu seme-alabei, ilobei eta osaba-izebei

Joxe Carrera

Orioko udaltzainburua

GaleBask S.L.
Berrikuntzak
Gremioen arteko koordinazioa

638 610 349
Tel./Fax: 943 134 717
galebask@hotmail.com

www.galebask.com
Kale Nagusia, 2 -bajo
20810 ORIO





Fabianen bertsoak aldizkariko bertsoen atalean doaz. IUTURAIN

1946ko alironeko bertsoak

Oroimenaren kutxa

Txirritak esan zuen: *bertsolariya egonagatik lurpian nire bertsoak biziko dira beste larogei urtian*. Fabian Loidiren bertso batzuek ere ia lortu dute marka hori. Aurtengo udaberrian, Inazio Sarasua zenaren senideak herriko soziedade batean elkartu ziren. Bazkal ondoren kantari hasita, batere paperik gabe, 1946 urtean Loidi apaiz bertsolariak Orioko arraunarlariei jarritako bertsoak kantatu zituzten, 64 urte pasa eta gero. Egin ote dakioke omenaldi hoberik bertsolari bati?

1946ko urriaren 6an Santanderko badian traineruen

Espainiako txapelketa jokatu zen. Urte hartan Pedreñak, Castilla izeneko traineruarekin, Kontxako bandera eraman zuen, euskaldun guztiei aurre hartuz. Orduko egunkariak kastellanoek euskaldunei irabazi zietela zioten. Orio Gipuzkoaren ordezkari joan zen: *Orio a defender el honor del remo guipuzcoano* zioten orduko kartekek.

Txapelketaren aurretik Oriok beste hiru jokatu zituen: Donostian eta Bilbon, patroik *Txato* zutela, hirugarren eta bigarren geratu ziren; eta Santanderko estropadan, patroik *Rubio* zutela, aurrena.

Txapelketako ontziak San Nikolas zuen izena, bainajende artean ezagunagoa zen Kaiku Txikia moduan.

Txapelketa hura irabazi egin zuten. Hauxe izan zen egun hartako koadrila: patroik Domingo Mitxelena; estriborretik, Jose Mari Aldalur, Miguel Olasagasti, Ramon Indo, Jose Loidi, Jose Mujika, Luis Gaztañazpi eta Inazio Sarasua; baborretik, Antonio Olliden, Joakin Fresneda, Segundo Manterola eta Luis, Jose-mari eta Esteban Azkue.

Fabianen bertsoak dio: *Lenbizi Oriyo ta bigarren Pedreña, irugarren Sestao, lau garren Coruña*. Oriok harrera izugarria egin zien estropalariei, izan den handiena, diotenez. Loidik herriko mutil koskorrei prestatuta zeuzkan bertsoak erakutsi eta kantari ibili ziren kalez kale.

[IÑAKI ITURAIN]

Ikasleak idazle
Maria Rengifo

Garraio publikoak

Gehiegizko kutsadura-ren ondorioz, lehen-gaien urritasunen ondorioz, ekologikoak izan behar dugu. Dagoeneko, zakar birziklaketa nahiko aurreratuta dago eta, orain, kutsadura murrizteko, garraio publikoa erabiltzera bultzatzen da. Baina nola nahi dute jendeak garraio publikoa erabiltzea hain garesti jarrita? Ur-

tetik urtera prezioak gora egiten du etengabe, eta gure poltsikoek nabaritu egin dute. Egungo kri-

siak ere eragin du igoera horretan, eta bizitza egunetik egunera garestiagoa bihurtzen ari da.

Horregatik, ez zait zentzuzkoa iruditzen garraio publikoa erabiltzera animatzea eta bidaiak hain garesti izatea. Prezioak merketu egin beharko lirake, jendeak garraio publikoa gehiago erabil dezan.

Ez zait zentzuzkoa iruditzen garraio publikoa erabiltzera animatzea eta bidaiak hain garesti izatea



Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



RAMIRO
argazkiak

•ezkontza erreportajeak
600 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 697 668
www.fotoramiro.com

» INKESTA

Hondartzara joan-etorrian ibiltzeko egokia iruditzen al zaizu txu-txu trena?

158 erantzun jaso ditu galderak. **%77,85** rentzat egokia da, **%5,70** entzat desegokia da, **%15,19** ri bost axola zaio kontua eta **%1,27** k ez daki zer esan gai honen inguruan.

Zaborra biltzeko zein sistema iruditzen zaizu egokiena?

187 erantzun jaso ditu galderak. **%44,92** atez atekoaren alde agertu da, **%40,64** 5. edukiontziaaren alde, **%12,83** k dagoen bezala utziko luke, **%1,07** ri bost axola zaio eta **%0,53** k ez daki zer esan.

» OSPAKIZUNA

**Enaitz Etxabe Elustondo**

Abuztuaren 20an jaio zen Saltxipi baserriko Enaitz Etxabe Elustondo txikia, Olatz Elustondo eta Xabier Etxabe gurasoen etxeko errege berria. Txikia zetorrela, baina 3.560 kg eta 51 cm luzeko morroskoa jaio zen azkenean, eguerdiko 13:10ean. Amaren hitzetan, gau-txori samarra da Enaitz; aitaren lanbidea -trikitolaria- txikitatik ikasi ote duen beldur da Olatz.

**HURRENGO GALDERA****Zer iruditu zaizu KARKAREN diseinu berria?**

Erantzun ezazu
WWW.KARKARA.COM
webgunean eta emailtza
285. KARKARAN
argataratuko dugu.

» ZORIONAK!

Gure atariko erabiltzaileei

Badira hiru bat urte WWW.KARKARA.COM webgunea martxan jarri genuela. Erronka handia izan da guretzat gaur egungo teknologia berrietara egokitzzea. Karkarazaleentzat ere Orio eta Aiako berri izateko bitarteko berri bat izan da.

Jakin badakigu Internet ez dagoela oraindik herritar guztion eskura eta ordenagailuari uko egiten dion asko ere badagoela. Hala ere, geroz eta jende gehiagok darabil gure webgunea eta pozgarria zaigu. Udako inkestetan, esaterako, ehundik gora boto jaso ditu galdera bakoitzak. Kontxako estropadetako aragazkiek ere erabiltzaile asko erakarri dituzte. Zorionak, beraz, WWW.KARKARA.COM atariari bizia ematen diozuen guztiei.

tel/fax: 943 89 00 69
Iturbide, 11 - 20010 Orio (Gipuzkoa)

ITURBIDE

ITURBINTZA, BERGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Kontak hartu: 943 89 00 69

ZAPATA KONPONKETAK

Lanegunetan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 18:00
Larrietan: 09:00 - 13:00
Berritako eremuetan, Orio

Antilla hondartzak
943 86 80 34
657 83 88 50
20810 Orio
www.txalupa.com

» JAIOTAKOAK

- Itxaso Olaizola Olaskoaga, Orion, irailaren 7an.
- Aroa Portularrume Oliden, Aian, irailaren 4an.
- Naia Ruiz Indart, Orion, abuztuaren 26an.
- Enaitz Etxabe Elustondo, Aian, abuztuaren 20an.
- Malen Udabe Zulaika, Orion, abuztuaren 18an.
- Haran Ostolaza Moreno, Orion, abuztuaren 11n.
- Djiara Ndao San Sebastian, Orion, abuztuaren 4an.
- Julen Rhani Izagirre, Orion, uztaillaren 26an.
- Alejandra Alvarez Azkue, Orio, uztaillaren 22an.
- Alaine San Sebastian Vitoria, Orio, uztaillaren 6an.
- Malen Etxaniz Aduriz, Orion, uztaillaren 2an.


» EZKONDUTAKOAK

- Arkaitz Albizu Bilbao eta Oihana Madariaga Generelo, Orion, abuztuaren 28an.
- Noemi Curiel Oliden eta Aitor Manterola Olariaga, Orion, abuztuaren 27an.
- Joxe Azkune eta Miren Gurutze Esnal, Aian, uztaillaren 3an.
- Elixabete Illarramendi Fernandez eta Joseba Iñaki Fernandez Uranga, Orion, ekainaren 26an.
- Jose Antonio Lizaso Arrubarrena eta Maitane Bastida Moreno, Orion, ekainaren 26an.

» HILDAKOAK

- Jose Joakin Iruretagoiena Larrarte, Aian, irailaren 9an. 60 urte.
- Justina Etxeberria Azkue, Aian, irailaren 5ean. 101 urte.
- Maria Antonia Zubelzu Zubillaga, Orion, abuztuaren 10ean. 88 urte.
- Ignazia Makazaga Agirresarobe, Orion, abuztuaren 1ean. 76 urte.
- Elena Iturain Arozena, Orion, uztaillaren 27an. 86 urte.
- Manuel Gozategi Makazaga, Orion, uztaillaren 16an. 76 urte.
- Isidora Iribar Azkue, Orion, uztaillaren 2an. 75 urte.
- Nekane Enbil Arana, Orion, ekainaren 25ean. 75 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



PERTSIANAK
AKO M
K 1 A
O Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 83 29 01 Magikorta 600 70 52 27

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA
KARKARA
943 83 15 27
ALDIZKARIAN

azkue
karrozeria
Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tl/fax: 943 83 51 86 Carrocenasazkue@hotmail.com

URAITZ
carriología
carrocería
Enluzia Tfnr 943 83 15 27

WEB
DISEÑO
PROGRAMAZIOA
JON CEREZO OTÁÑE
TEL: 691-31-22-40

“Bikiniak ez ezik estanpatuak ere guk diseinatzen ditugu”

Amalia Duran

Bikini eta estanpatu diseinatzailea

Oporrak ahaztu dituzte gehienek eta neguko jantziekin pentsatzen hasi da beste asko. Baina bada datorren urterako moda buruan duenik; hurrengo udan hondartzak jantziko dituzten bikiniak diseinatzen baititu Uhina etxeak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Amalia Duran moda diseinatzaile oriotarra da, bere bikotekidearekin batera, Uhina markarekin, modaren olatura igo eta bikiniak ez ezik haien estanpatuak ere diseinatzen dituena.

Nola hasi zinen diseinatzen?

Orain dela 14 urte hasi nintzen beste enpresa batzuentzat lanean. Nire bikotekidea eta bazkide dena ezagutu nuen eta, bera diseinugile grafikoa da, beste enpresa batek bikini bilduma bat egitea proposatu zigun. Pixkanaka hasi eta 6. bildumara iritsi gara. Gainera, bi urte dira gure kontura ari garela.

Nondik dator kizu diseinurako grina?

Diseinua beti izan dut gogoko. Moda diseinu ikasketak egin nituen eta lanean larrazko jantzien eta kirol arropen diseinuan aritu nintzen. Orain, gurean ez ditugu bikiniak bakarrik diseinatzen; gure bikinien estanpatuak geuk eginak dira eta besteentzat ere diseinatzen dugu.

Zein edo zer da zure inspirazio iturria?

Dekorazio liburuak, egunero ikusten ditudan gauzak eta, noski, Internet ezinbesteko iturria da. Irudi geometriko asko ikusten da gure lanetan. Hasi ginean ez ziren hain ohikoak eta, jendeari gustatu zitzaizkionez, jarraitu egin genuen. Galdetu izan digute estanpatuak non erosten ditugun eta guk sortuak direla esandakoan eskatu egiten dizkigute.

Bikiniak norentzat egiten dituzue?

Batik bat gazteentzat, 15-35 urte bitartekoentzat. Ez dira bularrak goratzen dituzten horietakoak, baina pozik gaude gure bikiniak jendeari ondo ematen dietela esaten digutelako.

Non saltzen dituzue bikiniak?

Hainbat arropa dendatan: Orion Luan, Zarautzen Essusen, Donostian Goiurin... Gure asmoa da ahalik eta gehien zabaltzea eta horretan ari gara.



KARKARA

Hondartzan ikusiz gero...

Pozgarria da benetan. Batzuetan gertatu izan zaigu neskak, hondartzan, gure bikiniak jantzita ikusi eta begira gelditu ondoren konturatzea haiek zer pentsatuko ote duten, baina gustatzen zaigu ikustea. Behin gertatu zitzaigun beste etxe batentzat estanpatu bat egitea eta hondartzan, egun berean, bost neska bikini berdinarekin ikustea.

Jendeak diseinuari ala funtzionaltasunari erreparatzen dio?

Gu ez gaude dendan, baina gure bezeroek diotenez diseinuak ematen die atenzioa eta gero probatzea da kontua, batzuetan jantzita gustukoago baitituzte. Ez ditugu neurritan egiten, baina dendei aukera ematen diegu gure diseinuren bat gustatuz gero, eskusiban euren dendan saltzeko.

“Behin gertatu zitzaigun egun berean bost neska hondartzan ikustea guk diseinatutako estanpatudun bikini berdinarekin”

“Uretako hainbat ekitalditan erabiltzen diren publizitate euskarriak patentatuta dauzkagu; estropadetako San Miguelenak, esaterako”

Nolakoa izango da bilduma berria?

Kirol eta surf dendetan hasi ginen, baina orain bestelako dendetan ere sartu nahi dugu. Horretarako, kolore finagoak aukeratu ditugu; eta formetan ere egin dugu aldaketarik, esaterako, betegarriak erabiliz. Hau da, serioak izan gabe modelo apalagoak dira. Irudi retroak ere erabiltzen ditugu erantzun ona izan dutelako; estanpatu zuri-beltzak; marraz...

Baina, bikiniak zure lanaren zati bat dira. Zer gehiago egiten duzu?

Uretako hainbat ekitalditan erabiltzen diren publizitate euskarriak patentatuta dauzkagu; adibidez, estropadetan, San Miguel etxearenak. Martin Berasategiren irudi berria diseinatzen ari gara eta Irizarrentzat ere lan egiten dugu. Estanpatuei buruzko *Cultura textura* liburu dugu kalean eta ikusi ditugu hango estanpatuak telebista saioetan. Sextako *El Muro Infernal*-en, TV3-ko *1 quart de 3*-en... Gainera, gure estanpatuak erabili izan dira etxeko dekoraziorako ere.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

■ Etxebizitza berria alokatzeko, Armendigain kalean. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta jangela ditu. Tf: 629 680 410.

■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo, lan orduetan, 943 83 15 18.

Salgai

■ 2 gela handiko eta 2 komunetako duplex berria (2003koa) salgai, herriaren erdialdean. Igogailua eta trasteroa ditu eta oso argitsua da. 279.000 euro. Tf: 652 73 78 64.

■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.

■ Etxea salgai Goikokalen, 150.000 eurotan. Tf: 657 70 19 11.

■ Etxea salgai Eusko Gudarain. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

Galdutakoak

Zer, nolakoa, zein prezio-tan, kontaktua.

Zer, nolakoa, zein prezio-tan, kontaktua.

■ Hondartza inguruan haurren hartza itxurako panpin arroxak bat galdu da. Oso gustukoa du eta norbaitek aurkituz gero 650 45 08 69ra deitu dazala, mesedez.

Lan bila

■ Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da Deba Garaiko enpresa batean kudeatzaile aritzeko. Ordutegi malgua; etxetik

egin daiteke planifikazio lana; kilometrajea ordaintzen da. Soldata oso erakargarria. CV-a eurekaesign@gmail.com-era bidali.

■ Udan umeak zaintzeko neska gaztea eskaintzen da. Tf: 943 83 08 04.

■ Orion bizi den emakume marokoarrak lana egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldean laguntzaile moduan. Garbiketa lanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

■ Neska gazte eta arduratsua udan haurrak zaintzeko. Tf: 658 22 55 62.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
17	11:59 eta ____	05:22 eta 18:34	
18	01:29 eta 14:07	07:31 eta 20:39	
19	02:58 eta 15:18	08:51 eta 21:32	
20	04:02 eta 16:12	09:46 eta 22:20	
21	04:41 eta 16:48	10:21 eta 22:54	
22	05:11 eta 17:16	10:49 eta 23:21	
23	05:36 eta 17:41	11:12 eta 23:48	
24	05:59 eta 18:05	12:04 eta ____	
25	06:21 eta 18:30	00:12 eta 12:27	
26	06:44 eta 18:56	00:36 eta 12:51	
27	07:10 eta 19:25	01:03 eta 13:17	
28	07:38 eta 19:57	01:31 eta 13:47	
29	08:09 eta 20:34	02:03 eta 14:21	
30	08:46 eta 21:19	02:40 eta 15:02	
01	09:33 eta 22:20	03:26 eta 15:54	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

IRAILA / URRRIA

- 17an, Larrañaga.
- 18tik 23ra, Lasa.
- 24an, Mutiozabal.
- 25ean, 26an, Etxeberria
- 27an, Zulaika.
- 28an, Iriarte.
- 29an, Larrañaga.
- 30ean, Mutiozabal.
- 1ean, Etxeberria.
- 2an eta 3an, Zulaika.
- 4an, Iriarte.
- 5ean, Larrañaga.
- 6an, G. Artiñano.
- 7an, Etxeberria.
- 8an, Azaldegi.

- Azaldeg:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:41	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Herri baten jakinduria

Erakusketa jarri du Jon Galdos Kazabon hondarribiarrak Orioko Kultur Etxean. *Herri baten jakinduria* izenburupean, 24 lan bildu, eta kolorez bete du kultur etxeko gela nagusia; margolanak dira gehienak, baina badira zurezko piezak ere. Izenburu banarekin identifikatu ditu lan guztiak eta azalpen txikia ere badute batzuek. Urriaren 7a arte, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, zabalduko ditu ateak.

Orio

Ikastaroa

- Urrian hasi eta ekaina arte, *Guraso eta seme-alabak elkar ulertzea* ikastaroa, gurasoen-tzako formazioaren baitan. Formatzaileak: Nerea Mendi-zabal, psikopedagogoa eta gizarte hezitzailea. Hilean larunbat batez, 9:45etik 11:45era lehen urtea dutenek, 12:00etatik 14:00etara iaz ere ikastaroan izan zirenak, Maria Maestra haurreskolan. Astelehenetan saio praktikoak egiteko aukera.
- Izena ematea: urriaren 1a baino lehen, Maria Maestra haurreskolan. Prezioa: larunbateko saio bakoitzeko 15na euro lagunek (bikotea joanez gero, 21 euro bikoteko); asteleheneko saio bakoitzeko, 10na euro lagunek.

Irteerak

- Irailaren 26an, Talai Mendi mendi elkarteak antolatuta, Zuberoako Harpeara mendi ibilaldia.
- Noiz, zer izango da, zein ordutan, kultur etxean.

Traste zaharrak

- Irailaren 29an, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien alboan.

Dantza

- Irailaren 29an hasita, asteazkenero, helduen dantza eskola, 21:30ean, Kosta Tailerrean.

Erakusketak

- Irailean, Luis Lizarralde Bixkiren argazki erakusketa, arraun ardatz hartuta. Salatxo tabernan.
- Irailean, Luis Lizarralde Bixkiren argazk

Txuleta Festa

- Urriaren 1ean eta 2an; Orioko eta Tolosako Udalek antolatuta. Urriaren 1ean, afaria eta urriaren 2an bazkaria eta afaria, Herriko Plazan. Txartel bakoitzaren prezioa: 40 euro
- Lekua hartzeko: 943 83 09 04 telefono zenbakira deitu -10:00etatik 14:00etara / 16:00etatik 20:00etara- edo turismoa@oriokoudala.com helbide elektronikora idatzi.

Bestelakoak

- Irailaren 17an, odola-emaitea, 18:30etik 20:30era, anbulatorioan.

Aia

Sanmielak Laurgainen

- Irailaren 29an, txupinazoa, 10:45ean.
- Irailaren 29an, meza,

11:00etan.

- Irailaren 29an, hamaiketakoa trikitilarietz lagunduta, mezaren ondoren.
- Irailaren 29an, herri kirolak: Lardarbide eta bere kideak harria jasotzen eta aizkoran, hamaiketako bukatu ondoren.
- Urriaren 1ean, auzo afaria, 21:00etan.

- Urriaren 1ean, erromeria Izer eta Alabier trikitilariekin, afariaren ostean.

- Urriaren 2an, mus txapelketa, 16:30ean. Izena ematea, 16:00etan.

- Urriaren 2an, musika emanaldia Tapia eta Leturia eta Jon Ostolaza trikitilariekin, 23:00etan.

Podologoa

- Urriaren 9an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

Silo-bolak

- Urriaren 12an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera, 943 81 65 00 telefono zenbakira deitu edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

